

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA

6. araua

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan jasotako baimenaren babesean.

Kontzeptua

2. artikulua.- Prezio publiko hauek ezartzen dira zerbitzu jakin batzuk emateko, halakoak non ahalbidetzen baitute beren egoera dela medio haien beharra duten pertsonak beren etxeetan jarraitzea, arreta pertsonala jasota.

3. artikulua.- Prezio publikoa hileroko osoen bidez ordainduko da, eta hilabetea amaituta, zerbitzuak zein hilabetetakoak izan eta hurrengo hilaren lehen hamabostaldian.

Tarifen aplikazioa

4. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifa zehazteko, kontuan hartuko dira ondoko artikuluetan zedarritutako kontzeptuak eta tarifa-eranskinean xedatutakoa.

5.- artikulua.- Eranskinean jasotako tarifak aplikatzeko, Udalak ofizioz egiaztatuko ditu erabiltzaileen datu fiskalak, betiere interesdunek aurrez baimena emanda. Datu horiek jasota izan ezean, jakitera emanen zaie erabiltzaileei aurkez ditzaten, eta hileko *per capita* errenta garbia zehazteko kontuan har daitezkeen gastu kengarrien gaineko informazioa ere emanen zaie erabiltzaileei, justifika ditzaten.

Hala ere, 4. tarifa-eranskinean jasota dagoen ondarearen araberrako indize zuzentzailea zehazteko, Udalak honako agiri hauek –zerbitzuaren onuradunarenak edo familia-unitateko gainerako kideenak– eskatzen ahalko dizkie zerbitzuen eskatzaileei: zerga-datuei buruzko txostena –Foru Ogasunak emanda–, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren txostena edo ziurtagiria edota ondasun higiezinaren balorazio-orria, bai eta beste edozein agiri ere, aipatu indizea zehazteko bada.

6. artikulua.- Hileko *per capita* errenta zehazteko, honako kontzeptu hauek joko dira oinarri:

a) Familia-unitatea: Prezio publikoa kalkulatzeko, PFEZaren gaineko indarra duten arauetan xedatutako familia-unitatea hartuko da aintzat.

b) Errenta: PFEZaren gaineko aitortpena edo likidazioa egiteko betebeharra duten familia-unitateko kideen azken aitortpena edo likidazioa –eskaera noiz egin eta data horretan jada aurkezteko epea amaiturik duen ekitaldiari dagokiona– hartu, eta haren zerga-oinarriaren alde orokorra eta aurrezkiaren likidazio-oinarri berezia batuko dira, eta emaitzari salbuetsitako prestazioen edo errenten zenbatekoa gehituko zaio. Ez dira salbuetsitako prestazio edo errentatzat hartuko Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak (PAGNA) mendekotasuna duten pertsonak familia-ingurunean zaintzeko emandako laguntzak, baldin eta zaintza horiek familiakoek edo profesionalek ematen badituzte. Erabiltzaileek PFEZaren gaineko aitortpena egin behar ez izatera, datu fiskaletan jasotako diru-sarrerara gordin eguneratuenak hartuko dira kontuan.

c) *Per capita* errenta garbia: urteko *per capita* errenta garbia kalkulatzeko, aurreko puntuan zehaztutako errentaren eta gastu kengarrien diferentzia aterako da, eta horren emaitza familia-unitateko kide kopuruaz zatituko da. Hileko *per capita* errenta garbia lortzeko, urteko *per capita* errenta hamabiz zatituko da.

Errentari dagokion ekitaldian ordaindutako zenbatekoak, jarraian adierazitako kontzeptuengatik:

1. Ohiko etxebizitzako gastuak (muga: 4.800 € urteko), honako kontzeptu hauek batuta:

- Ohiko etxebizitzaren, apartamentu babestu publiko baten edo antzeko beste zerbaiten alokairua.
- Ohiko etxebizitza erosteko maileguaren amortizazioa.
- Ohiko etxebizitza egokitzeko edo birgaitzeko lanek sortutako gastuak, pertsonen behar soziosanitarioengatik edo eraikinak jasangarriago bilakatzeko beharrengatik.

2. Langileak kontratatutako gastuak gizarte- eta osasun-egoera dela medio halakorik behar duten pertsonak beren etxeetan jarraitu dezaten arreta pertsonala jasotzen, betiere hori guztia frogatzeko modukoa izanda, dela mendekotasuna aitortzeko ebazpen baten bidez, dela Udaleko gizarte-zerbitzuek egindako txosten baten bidez (muga: 8.400 € urteko). Gastu kengarria ezartzeko, hala badagokio, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak (PAGNA) mendekotasuna duten pertsonak familia-ingurunean zaintzeko kobratutako laguntzak kenduko dira. Kenkari horri heltzeko, kontratatutako pertsonaren kontrata eta Gizarte Segurantzako alta aurkeztu beharko dira.

3. Eguneko zentroetako egonaldi-gastuak (muga: 4.800 € urteko) edo egoitza geriatrikoetako egonaldi-gastuak (muga: 12.000 € urteko).

4. Pentsio konpentsatzaileak: epai judizialean jasotakoak. (Bakarrik aplikatzen ahal da PFEZaren aitortpenaren zerga-oinarritik errenta kalkulatzeko ez den kasuetan).

7. artikulua.- Tarifaren oinarritzko unitatea zehazteko era: Tarifaren oinarritzko unitatea zerbitzua ematen benetan egindako ordua da. Oinarritzko unitatearen prezio publikoa tarifa-eranskinean finkatutakoa izanen da.

TARIFA-ERANSKINA

INDIZE ZUZENTZAILEA ONDAREAREN ARABERA	
- 30.001 eta 39.000 euro bitarte	Hileko <i>per capita</i> errentarekin bat zein tarte egokitu eta goragoko hurrengo tarte aplikatzen zaio.
- 39.001 eta 48.000 euro bitarte	Hileko <i>per capita</i> errentarekin bat zein tarte egokitu eta goragoko bigarren tarte aplikatzen zaio.
- 48.001 eta 57.000 euro bitarte	Hileko <i>per capita</i> errentarekin bat zein tarte egokitu eta goragoko hirugarren tarte aplikatzen zaio.
- 57.001 eta 100.000 euro bitarte	Hileko <i>per capita</i> errentarekin bat zein tarte egokitu eta goragoko laugarren tarte aplikatzen zaio.
- 100.000 eurotik gora	100.000 eurotik gorako ondarea izanda, oinarrizko unitateari dagokion prezio publikoa aplikatuko zaio.
Ohiko etxebizitzaren balioa ez da kontuan hartuko ondarearen balorazioa egitean.	

BESTELAKO INDIZE ZUZENTZAILEAK
Familia-unitatea bi kidek edo gehiagok osatua izanez gero, 1. eta 3. epigrafeen tarifak % 10 gehituko dira.

1. EPIGRAFEA.- ZUZENeko PRESTAZIOAK		
Familia-unitatearen diru-sarrerak Hileko <i>per capita</i> Errenta Garbia	Hileko lehen 30 orduak	31. ordutik aurrera
OAEAP baino gutxiago	3,05 euro. Hileko tarifa finkoa	3,05 euro. Hileko tarifa finkoa
OAEAParen % 100 eta % 120 bitarte	0,73 euro orduko	Tarte bakoitzerako ezarritako prezio publikoaren % 50
OAEAParen % 120 eta % 140 bitarte	1,46 euro orduko	
OAEAParen % 140 eta % 160 bitarte	2,19 euro orduko	
OAEAParen % 160 eta % 180 bitarte	3,65 euro orduko	
OAEAParen % 180 eta % 200 bitarte	5,11 euro orduko	
OAEAParen % 200 eta % 220 bitarte	6,57 euro orduko	
OAEAParen % 220 eta % 240 bitarte	8,76 euro orduko	
OAEAParen % 240 eta % 260 bitarte	10,95 euro orduko	
OAEAParen % 260 eta % 280 bitarte	13,14 euro orduko	
OAEAParen % 280tik gora	14,61 euro orduko	
(OAEAP: Ondore Anitzeko Errenta Adierazle Publikoa)		

II. EPIGRAFEA.- BAZKARI ETA AFARI PRESTATUEN ZERBITZUA:		
Familia-unitatearen diru-sarrerak Hileko <i>per capita</i> Errenta Garbia	Bazkaria	Afaria
OAEAP baino gutxiago	0,50 euro	0,50 euro
≥ OAEAParen % 100 eta % 120 bitarte	1,00 euro	0,75 euro
OAEAParen % 120 eta % 140 bitarte	2,55 euro	1,50 euro
OAEAParen % 140 eta % 160 bitarte	3,05 euro	2,55 euro
OAEAParen % 160 eta % 180 bitarte	4,10 euro	3,05 euro
OAEAParen % 180 eta % 200 bitarte	4,60 euro	3,60 euro
OAEAParen % 200 eta % 220 bitarte	5,65 euro	4,10 euro
OAEAParen % 220 eta % 240 bitarte	6,15 euro	4,60 euro
OAEAParen % 240 eta % 260 bitarte	7,20 euro	5,15 euro
OAEAParen % 260tik gora	7,70 euro	5,65 euro
(OAEAP: Ondore Anitzeko Errenta Adierazle Publikoa)		

3. EPIGRAFEA.- ARROPA GARBITU ETA LISATZEKO ZERBITZUA	
Familia-unitatearen diru-sarrerak Hileko <i>per capita</i> Errenta Garbia	Hileko tarifa
OAEAP baino gutxiago	3,05 euro
OAEAParen % 100 eta % 120 bitarte	6,15 euro
OAEAParen % 120 eta % 140 bitarte	6,65 euro
OAEAParen % 140 eta % 160 bitarte	13,35 euro
OAEAParen % 160 eta % 180 bitarte	19,55 euro
OAEAParen % 180 eta % 200 bitarte	26,75 euro
OAEAParen % 200dik gora	40,15 euro
(OAEAP: Ondore Anitzeko Errenta Adierazle Publikoa)	